



***Gure energia, gure ingurukoentzat***  
***Energía por y para las personas***

## **Akta/Kronika.**

**2.en Fasea 2. 1.go Saioa**

**Plazaldea [23/04/18]**

### **1.- Deskribapena**

#### **1.- Oinarrizko informazioa.**

- **Data:** Apirilaren 18a, asteartea.
- **Saioaren iraupena:** 2 ordu.
- **Ordutegia:** 18:00tatik 20:00tara.
- **Lekua:** Plazaldea, Uharte.
- **Parte hartzaileak:** Uharteko biztanleak. Udaerriko ehun sozial, ekonomiko eta insituzionaleko eragileak.
- **Parte hartzaile kopurua:**
  - Guztira: 20
  - Genero/sexu banaketa:
    - Emakumeak: 4
    - Gizonak: 16
    - Ez binarioak: 0
    - Ezezaguna: 0

#### **2.- Deskribapena.**

- **Saioaren helburuak:**
  - Uharte EHK/EBKren 2. faseari hasiera ematea: Diseinua eta ko-sorkuntza.
  - Fase honetako esparrua, helburuak eta prozesuak bateratzea.
  - Talde Eragilearentzako eta Lan Taldeentzako egitura-proposamena aurkeztu eta onartzea.
  - Talde Eragileari erabakiak hartzeko jarraibide erabilgarriak aurkeztea eta horretarako espazioak zein izango diren azaltzea.
  - Lan-taldeak prestatzea eta martxan jartzea. Horietako bakoitzaren helburuak eta beharrak definitzea, funtzionatzen hasteko behar den gutxieneko egitura ematea.
  - Lan-taldeak osatuta saioa amaitzea, barne-komunikazioko kanal bat ezarrita eta eman beharreko hurrengo pausoak definituta.

## 2.- Edukiak

Lehenik eta behin, Uhartin Energia Berriztagarrien Komunitatea abian jartzeko aurreikusitako 3 faseen memoria ekarri dugu, gogorazteko eta denboran kokatzen laguntzeko. Amaitutzat ematen dugu **1. fasea: Prestaketa**. Lehenengo saio honekin 2. fasea abiatu dugu: **Diseinua eta Elkar sorkuntza**.


Bigarren fase honetan, Goienerrren eta Aise/Nomaden bidelaguntza eta dinamizazioak lagunduta, Talde Eragilea eta Lan Taldeak osatuko ditugu, ekainean, bost lan-saio parte-hartzaile egin ondoren, honako helburu hauek lortzeko asmoarekin:

1. EBKrako forma juridiko bat adostea.
2. Lehenengo proiektu baterako bideragarritasun-proposamen egiaztatua izatea.
3. Elkarrekin komunikazio-estrategia bat landu dugu.

### Proceso CER Huarte



Fluxograma horrek laburbiltzen du helburu horiek lortzeko prozesua:



## Erabaki hartzeak.

Talde handian, AISEko bidelaguen erabaki hartzeak errazteko oinarri eta mekanismo batzuk azaltzen dizkigute.



### ERABAKI MOTAK IRISMENAREN ARABERA

**Estrategikoak:** Helburu orokorrak eta epe luzekoak identifikatzearekin eta horiek lortzeko bitartekoekin dute zerikusia. Adostasun handiagoak eskatzen dituzte.

**Antolakuntzakoak edo taktikoak:** Talde baten prozedurak eta zatiak antolatzeko moduarekin dute zerikusia, eraginkorrak eta antolatuak izateko.

**Operazionalak edo neurriak:** Talde batek bere eguneroko jarduerak nola gauzatzen dituen adierazten dute.

Erabakiak hartzeko orduan, oso garrantzitsua da kontuan hartzea zer erabaki-mota hartzen ari garen eta nori dagokion erabaki hori hartzea. Oso komenigarria da talde osoak erabaki guztiak hartu behar ez izatea, bestela nekagarria izan daiteke taldearentzat.

### ADOSTASUNAREN OINARRIAK:

#### (1) BOTEREA PARTEKATZEKO BORONDATEA.

Kontsensuz erabaki nahi duen talde batean parte hartzen duten pertsonen prest egon behar dute boterekeriak eta pribilegioak alde batera uzteko, berdintasunean funtzionatzen hasteko. Ni-tik Gu-ra pasatzea da kontua.

#### (2) PROZESUAREKIKO KONPROMISO KONTZIENTE ETA INFORMATUA.

Prozesua arretaz azaldu behar da, eta horren printzipioak noizean behin berrikusi behar dira. Zenbat eta taldekide gehiagok ulertu, orduan eta hobeto funtzionatzen du prozesuak. Joko-arauak argiak behar dute izan.

#### (3) AMANKOMUNeko ASMOA.

Talde batek ez badu bere ahaleginak bateratu eta bideratzeko asmo edo ikuspegi komunik, erraza da liskarretan erortzea eta erabakiekin bat ez datorrenak etengabeko blokeo jotzea.

#### (4) LAS AGENDAS SÓLIDAS.

Guztien ekarpenak kontuan hartuta ezartzen den gaiordena. Puntu bakoitzaren helburua argi eta garbi zehazten duena (informazioak, eztabaidatzeko edo erabakitzeak) eta behar den denboraz komunikatu dena.

#### (5) FAZILITAZIO ERAGINKORRA.

Bideratzailea prozesuaren zaindaria da. parte-hartzea berdintzeko asmoz (*Denak adierazten ari al dira?*), taldearen jakinduria adierazten laguntzea (*Ba al dago bestelako ideiarik?*) eta taldearen egoera argitzea (*Prest al gaude hurrengo puntura pasatzeko?*), parte-hartzea, zaintzak, eta eraginkortasuna orekatuz.

### ERABAKI HARTZE PROZESUETAKO URRATSAK.

Erabakiak hartzeko pausoak aldatu egin daitezke erabaki-motaren, taldearen kulturaren, taldeak beharrezkotzat jotzen duenaren eta abarren arabera. Baina, berriz ere, garrantzitsua da erabakiak hartzeko prozesu bat zehaztea, batez ere, talde baten bizitzarako, helburuetarako edo funtzionamendurako garrantzi handia duten erabakien kasuan, horiek baitira erabakiak hartzeko adostasuna behar dutenak. Kasu horietan bereziki garrantzitsua da talde osoaren jakinduria jasotzea.

Erabaki hartze prozesuen urratsak antolatzeko modu ohikoenetako bat hau da:

1. Erabakiaren irismena definitzea.
2. Erabakia nork hartzen duen identifikatzea.
3. Irizpideak definitzea.
4. Informazioa biltzea.
5. Alternatibak sortzea.
6. Alternatibak ebaluatzea.
7. Erabakitzea.
8. Ospatzea.





Fig 4. Proceso para la toma de decisiones<sup>vii</sup>

### 3.- Garapena.

Aurkezpen horren ondoren, lehen erabakia hartu genuen talde gisa. Horretarako, proposamen honetatik abiatu ginen:

***“Une hontatik aurrera eta 2. Faseak irauten duen bitartean (ekainera arte), onartzen al dugu Uharte EBKren Talde Eragile gisa eratzea proposatutako egiturarekin?” Proposatutako egitura diagrama honetan jaso da, eta hiru Lan Talde (proposamenak sortzeko espazio gisa) eta Talde Eragile batez osatzen da (erabakiak hartzeko eta koordinatzeko gune gisa).”***



Zalantzak argitzeko (Informazio gehiago eskatzen duten eta proposamena argitzen laguntzen duten ekarpenak) eta erreakzioetarako (ekarpen subjektiboak eta/edo emozionalak: beldurrak, kezka, kezka, etab.) lehen gune bat ireki genuen:

- Lantaldeak talde itxi bihurtu daitezkeelaren kezka adierazi zen. Beti pertsona berdinak elkartu eta haietan ideia desberdinak edo berriak sartzea zaila izango direnak.
- Horrez gain, Lantaldeak behar bezain anitzak ez izatearen kezka adierazi zen, edo Uharteko aniztasuna behar bezala ez islatzea.
- Beste ahots batzuek galdetzen dute ea nola bideratuko den informazioak Lantalde horien artean, eta ea posible izango den haien erritmoak modu egokian koordinatzea.
- Emailtzei eta eztabaidei buruzko bateratze-lana nola egingo den ere galdetu zen.

Ekarpen horietatik abiatuta, proposamena birformulatu genuen, hau hobetu eta kezka horiek zakartzaten beharrak kontuan hartzeko:

***“Egitura hori ematea adosten dugu, kontuan hartuta hemendik eta 2. fasea amaitu arte taldeak irekiak izango direla nahi duenak haietan parte hartzeko? Informazioa eskuragarri egon dadin, Gardentasunaren printzipioa ere adostu genuen: Lantaldeen aktak publikoak eta eskuragarriak izango dira. Gainera, arreta berezia jarriko dugu Lantaldeen osaeran aniztasuna zaintzeko.”***

Proposamen honekin Onespen-erronda bat egin genuen, eta proposamenari Eragozpenik ote zegoen galdetu genuen (Proposamena geldiarazi egiten duten ekarpenak, proiektuarentzat arriskutsua dela uste dutelako). Eragozpenik ez zegoenez, **proposamena onartu eta ospatu egin genuen.**



Ondoren, lantaldeak ezagutzera pasa ginen, eta haien helburuei eta beharrei buruzko ekarpenak egiteko dinamika bat gauzatu genuen, **Open Space** edo Azoka formatuan. Hau da, hiru espazioak irekita zeuden, eta pertsonak batetik bestera mugi zitezkeen hauetan ekarpenak eginez, informatuz eta eztabaidatuz. Eremu bakoitzean, bideratzaile edo erreferentziako pertsona batek Lantaldearen proposamena aurkeztu, zalantzak argitu eta ekarpenak jaso zituen.

Azkenik, Lantaldeak osatu genituen, eta denbora bat eman genuen elkar ezagutzen, talde bakoitzaren helburuak eta lanak berrikusten eta hurrengo urratsetan pentsatzen. Hona hemen Lantalde bakoitzaren zeregin, helburu, parte-hartzaileen eta akten laburpena:



## GRUPO DE TRABAJO JURÍDICO-ADMINISTRATIVO

### LANTALDE JURIDIKO-ADMINISTRATIBOA

#### Lantalde honen xedea

##### La misión de este grupo de trabajo

Este grupo de trabajo se encargará de **los aspectos legales, jurídicos y administrativos a tratar en la constitución de la cooperativa.**

Habrà que elaborar **los estatutos de la cooperativa** y hacer reflexiones sobre **los órganos, tipos de socios y fuentes de financiación** que se recogerán en la misma. Todo ello definirá el **modelo de gobernanza** de la comunidad. También deberá trabajar la **viabilidad económica** de la comunidad para que perdure en el tiempo..

##### Apoyo de Goienerr

Se elaborarán propuestas estatutarias, de gobernanza, de financiación y de contabilidad general



Lan-talde hau **kooperatibaren eratzean landu beharreko alderdi legal, juridiko eta administratiboetaz** arduratuko da.

**Kooperatibaren estatutuak** egin beharko dira eta bertan jasoko diren **organo, bazkide mota eta finantzaketa iturri**ei buruzko proposamenak egin. Horrek guztiak definituko du komunitatearen **gobernantza-eredua**.

Komunitatearen **bideragarritasun ekonomikoa** ere landu beharko du, denboran iraun dezan.

#### Goienerr-en babesa

Estatutuetako, gobernantzako, finantzaketako eta kontabilitate orokorreko proposamenak egingo dira.



#### Prozesuan zehar zeregin zehatzak.

##### Tareas concretas durante este proceso

##### • Creación y actualización de estatutos: propuesta de los apartados a definir en los estatutos.

- Objeto de la cooperativa.
- Tipos de socios.
- Composición de los órganos: asamblea general, consejo rector, comisión de vigilancia...
- Mayorías para las decisiones.

##### • Realizar el proceso de creación de la cooperativa:

- Nombre: tramitar la certificación negativa.
- Crear una cuenta corriente e ingresar el mínimo de 1500€.
- Proponer personas para el consejo rector.
- Celebrar la asamblea constituyente (y su acta constituyente)
- Hacer el registro en la notaría.
- Pedir la NIF en Hacienda.

##### • Cuando la cooperativa esté en marcha, garantizar su viabilidad y llevar la contabilidad.

##### • Estatutuak sortu eta eguneratzea: estatutuetan definitu beharreko atalak proposatzea.

- Kooperatibaren xedea.
- Bazkide motak.
- Organoen osaera: batzar nagusia, zuzendaritza kontseilua, zaintza batzordea...
- Erabakiak hartzeko gehiengoak.

##### • Kooperatiba sortzeko prozesua egitea:


- Izena: ziurtagiri negatiboa tramitatzea.
- Kontu korrante bat sortu eta gutxienez 1.500 € sartu.
- Zuzendaritza Kontseilurako pertsonak proposatzea.
- Batzar eratzailea (eta haren akta eratzailea) egitea
- Egin erregistroa notariotzan.
- IFK Ogasunean eskatu.

##### • Kooperatiba martxan dagoenean, bideragarritasuna bermatzea eta kontabilitatea eramatea



## Lantaldea - Juridiko-Administratiboa. Akta 18-04-2023 Lehen saioa

- Lantalde hau osatu zen: Pertsona hauek izan ziren bertan **Jose M<sup>a</sup> (Txepe), Edorta, Tomás, Miguel (biru), Martín, Frédéric y Xabi (Goienerr)**. Baliteke gutako norbaitek hemendik aurrera taldez aldatzea erabakitzea, eta beste norbait bertan sartzea animatzea komeniko litzateke.
- Aurkezpen-erronda batekin hasi ginen: Gutako bakoitza nondik hurbiltzen den eta mugitzen gaituzten interesak.
- Lehen hartu-ematean gaude. Nor falta zaigu talde honetan? Inguruko eta herriko zer pertsonak lagun diezaguketen galdetzen diogu geure buruari, bakoitzak bere kabuz pentsatuko du.
- Aurreko puntuan aipatzen diren zeregin zehatzei gehitzeko, honako hauek interesgarria izango liratekeela aipatu zen:
  - Energia-komunitatean bazkide izateko baldintzak eta bertatik irteteko baldintzak zehaztea.
  - Nafarroan abian jarritako kasu errealak ezagutzea. Galdetzea, gonbidatzea, beren esperientziari erreparatzea.
- Zitzu bizian joan zaigu denbora. Saioa amaitzeko, maiatzaren 2a baino lehen hitzordua proposatu genuen, horixe izango baita Talde Eragilearen hurrengo bilera egiteko eguna. Xabik Whatsappen talde bat sortuko du eta saioan ikusitakoaren laburpena bidaliko du. Interesgarria iruditzen bazaigu, bilera bat egingo dugu maiatzaren aurretik.
- Oraingoz, Xabi izango da talde horretako erreferentziako pertsona Goienerrren.





## GRUPO DE TRABAJO DE COMUNICACIÓN Y COMUNIDAD KOMUNIKAZIO ETA KOMUNITATE LANTALDEA

### Lantalde honen xedea La misión de este grupo de trabajo

Será el grupo de trabajo encargado de **cuidar** a las personas de la comunidad y hacer el **trabajo de difusión** hacia nuevos contactos.

En él se concretará el **funcionamiento de la comunidad**, las vías para ir ampliando **las redes** de relación de forma continua y **la estrategia de comunicación**.

#### Apoyo de Goiener y Aise

Se ofrecerán recursos en estrategias de comunicación y cuidado de la comunidad, si se precisara.



Lan-talde hau komunitateko pertsonak **zaintzeaz** eta kontaktu berriak **zabaltzeko lanaz** arduratuko da.

Bertan zehaztuko dira **komunitatearen funtzionamendua**, **harreman-sareak** etengabe zabaltzeko bideak eta **komunikazio-estrategia**.

#### Goiener eta Aise-ren babesa

Komunikaziorako eta komunitatea zaintzeko estrategietan baliabideak eskainiko dira, behar izanez gero.



### Prozesuan zehar zeregin zehatzak. Tareas concretas durante este proceso

#### •Proponer la campaña de comunicación:

- Actualización de FAQ.
- Contacto con agentes, comercios y empresas.
- Preparar el acto de presentación de la comunidad.
- Contactos con los medios de comunicación.

#### •Proponer y preparar los soportes comunicativos:

- Nombre de la comunidad.
- Logo, imagen.
- Presentaciones (PPT), informes.
- Correo electrónico, página web, redes sociales...

#### •Otras relaciones:

- Contacto con otras comunidades.
- Relaciones institucionales.

#### •Dinámicas internas

- Convocatorias
- Actas
- Dinamización reuniones.

#### •Komunikazio kanpaina proposatzea:

- FAQ eguneratzea
- Eragile, denda eta enpresekin harremanak izatea
- Komunitatea aurkezteko ekitaldia prestatzea.
- Komunikabideekiko harremanak.

#### •Komunikazio euskarriak proposatu eta prestatzea:

- Komunitatearen izena, logoa, irudia.
- Aurkezpenak (PPT), txostenak.
- Posta elektronikoa, webgunea, sare sozialak...

#### •Beste harreman batzuk:

- Beste erkidego batzuekiko harremana.
- Erakundeekiko harremanak.

#### •Barne-dinamikak

- Deialdiak
- Aktak
- Bileren dinamizazioa



## Lantaldea - Komunikazioa eta komunitatea. Akta 18-04-2023. Lehen saioa.

**Parte-hartzaileak:** Isa, Fernando, Peio, Ainhoa eta Noelia

### Talde honek bere gain hartuko dituen lanak:

- Komunitatea dinamizatzea.
- Barne-komunikazioa.
- Kanporako komunikazioa.
- Taldea ordezkaritza lanak.
- Bitartekaritza eta gatazken kudeaketa.

(Hau, egindako ideia zaparradaren jasoketa baino ez da, talde handian onetsi beharko lirateke)


Pertsonak zaintzea zer den galdetzen diogu geure buruari.

(Agian hau ere talde handira eraman beharko genuke... hurrengo saioan ikusiko dugu)

Komunitate honen **Baloreei** buruz hitz egin genuen tarte batez. Hurrengo saiorako, guztion artean erabakitzeko balioen inguruko proposamena ekarriko dugu.

- Udaletxearen zein laguntza izango dugu?
- Talde horrek XEDEA, IKUSMIRA eta BALOREAK dinamiza ditzake.
- Baloreak? Ekonomia. Gizartean duen eragina. Ingurumen eragina. Erabakitzea.
- Taldeak anitzak izatea: generoa, adina... aniztasun hori zaintzea.

**Behin baino gehiagotan aipatu zen aniztasun handiagoaren beharra.**



## GRUPO DE TRABAJO DE PROYECTOS DE ENERGÍA ENERGIA PROIEKTUEN LANTALDEA

### Lantalde honen xedea La misión de este grupo de trabajo

La labor principal de este grupo de trabajo será **proponer diferentes proyectos y analizar su viabilidad**.

La viabilidad técnica, económica, la urgencia y el impacto ambiental potencial, así como el impacto social serán, como mínimo, los aspectos a tener en cuenta.

No hay una metodología única que mida todo tipo de impactos, habrá que buscar el más adecuado en cada caso, pero en concreto, para prever el impacto social, nos servirá tener construido el marco de valores.

#### Apoyo de Goienerr

Se realizarán **estudios** de viabilidad técnica, jurídica y económica de los proyectos y se elaborarán los **informes de pre-viabilidad** más adecuados.



Lantaldearen zeregin nagusia **proiektu desberdinak proposatzea eta haien bideragarritasuna aztertzea izango da.**

Kontutan hartu beharreko aldagaiak, gutxienez, bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa, lehentasunak eta proiektuek ingurunean izango duten eragina izango dira, bai eta eragin soziala ere.

Ez dago metodologia bakar bat mota guztietako inpaktuak neurtzeko, kasu bakoitzean egokiena bilatu beharko da, baina, zehazki, eragin soziala aurreikusteko, balioen esparrua eraikita izatea lagungarria izango zaigu.

#### Goienerr-en babesa

Proiektuen bideragarritasun tekniko, juridiko eta ekonomikoari buruzko **ikerketak** egingo dira eta **aurre-bideragarritasunari buruzko txosten** egokienak prestatuko dira.



### Prozesuan zehar zeregin zehatzak. Tareas concretas durante este proceso

- **Proponer proyectos.**
- **Proponer datos y criterios para que los proyectos sean viables:**
  - Cómo realizar el reparto de energía (coeficientes de autoconsumo...).
  - Estimación de cuántas personas/CUPS se necesitan.
  - Estimación de cuotas.
  - Rellenar las tablas de viabilidad (las plantillas Excel de Goienerr).
  - Analizar y gestionar las posibilidades de subvención para los proyectos.
- **Contacto con los proveedores.**
- **Proiektuak proposatzea.**
- **Proiektuak bideragarriak izateko datuak eta irizpideak proposatzea:**
  - ✓ Nola banatu energia (autokontsumo-koefizienteak...).
  - ✓ Zenbat pertsona/CUPS beharko diren kalkulatzeko.
  - ✓ Kuoten zenbatespena.
  - ✓ Bideragarritasun-taulak betetzea (Goienerrreko Excel txantiloia).
  - ✓ Proiektuetarako diru-laguntzen aukerak aztertu eta kudeatzea.
- **Hornitzaileekiko harremana.**



### Lantaldea - Proiektuak. Akta 18-04-2023. Lehen saioa.

Lehen izen-erronda bat egin genuen, lehen une batean zeintzuk geunden ezagutzeko: Javier Heredia, Juan León, José del Río, Juan Equiza, Roberto Baigorri, Iñigo San Miguel, Maite Alonso, Oihan (Aise) y Asier (Goienerr). Lantalde honen erreferentziatzeko pertsona Goienerrren David izango da, zeinek saio honetan ezin izan zuen parte hartu.


Lantaldearen helburuez eta haiengana hurbiltzen hasteko identifikatzen ditugun beharrez galdetuz hasi ginen. Ideia batzuk post-it-en eta ekarpen batzuk jaso genituen:

- **Zein udal espazio** eskuragarri izango ditugun ezagutzeko. Horri buruz galdetuta, kontsumo partekatuko instalazio fotovoltaiako bat Energia Komunitaterako lehen proiektu gisa egin daitekeen lekuak identifikatu beharko liratekeela esaten da.
- Ekonomikoki bideragarria ez bada, honek ez du ezertarako balio.

- Pilotalekuaren teiltatzen plaka batzuk bakarrik jarriko baditugu, agian honek ez du merezi. (EBKren dimentsioa argi edukitzeko beharraz hitz egiten dugu, pertsona bakoitzak prozesu horretan zenbat denbora eta energia emateko prest dagoen baloratu ahal izateko).
- Goienerrak esan beharko liguke **zer egin daitekeen**. Zuek badakizue zerbait, begiratu duzue zer egin daitekeen eta zer ez. (Goienerrak laguntzaile/aholkulari gisa duen informazioa eta papera argitzeko nolabaiteko beharra dago hemen).
- **Baloreak adostu beharko genituzke.**
- **Lanerako Plan bat behar dugu lehenik.**
- **Eta komunikatzeko modu bat.** Taldeak whatsapp talde bat egitea erabaki zuen.'
- Talde honetan nor falta den ere galdetu genion geure buruari. Zer pertsona ezagutzen dugu prozesu honetan interesa izan dezaketela eta lagungarri izan daitekeena?

Uste dugu ona litzatekeela **baloreak bateratzea**. Horrek oinarriak finkatzen eta lortu nahi ditugun proiektu eta esku-hartze motak bideratzen lagunduko liguke. Hitz-erronda bat egin genuen: **Zergatik gaude hemen?**

- Energia garbia, ekonomikoa.
- Erantzun bat herritik, komunitatetik
- Subiranotasuna.
- Energia-independentzia
- Lehenik ikasteko, eta, ondoren, sentsibilizatu eta kontzientziatu egin behar da. Bizilagunen komunitate guztiek egin nahi dezaten. (Nirean ez zen bi bozkagatik atera)
- Nik uste dut honek zentzua duela gizarte onura bat sortzen badu, egoera zaurgarrian dauden familiak kontuan hartzen baditu.
- Erantzukizunagatik. Garrantzitsua da erabiltzen ditugun elementuen bizi-ziklo osoa kontuan hartzea.



Post-itetan jasotako ideiak:

- Lanerako plana
- Familia kalteberentzako laguntzak
- Txosten teknikoak eta ekonomikoak.
- Proiektuen aukerak.
- Kostua/etekina zenbatesteko tresnak
- Udalaren espazioak izatea.
- Bizilagunen komunitateak.

### Saio honetan hartutako erabakiak:

- **Whatsapp talde bat sortzea**, komunikazioari eusteko eta informazioa partekatzeko. Goienerreko pertsona bat, talde honentzat erreferentea izango dena, izendatuko dugu, whatsapp taldearen parte izatako, eta, horrela, kontsultak arindu eta informazioa azkarrago bilatu ahal izango dugu.
- **Hurrengo bilera**. Apirilaren 25ean, asteartea, proposatzen da Plazaldean. Bilera honen helburua da lan-planarekin aurrera egitea eta Talde Eragilearekin hurrengo bileran partekatzea, maiatzaren 2an.



#### 4.- Emaizak eta hurrengo pausoak

**1.- Emaizak.** Saioa bukatutakoan, hiru lantalde osatuta genituen, bakoitzak whatsapp talde bat zutelarik komunikatzeko, eta beste bilera baterako deialdi bat Talde Eragilearen hurrengo bilera baino lehen.

**2.- Deialdiak:** 2. faseko diseinu eta sorkuntza prozesuarekin jarraituko dugu. Talde Eragilearen hurrengo parte-hartze saioak hauek izango dira::

- Maiatzak 2, asteartea  
Plazaldea: 18:00 h.
- Maiatzak 16, asteartea  
Plazaldea: 18:00 h.
- Maiatzak 30, asteartea  
Plazaldea: 18:00 h.
- Ekainak 13, martes  
Plazaldea: 18:00 h.

#### 3.- Aktak.

2. Faseko saioetako akta guztiak eta Lantaldeen aktak eskuragarri egongo dira sarbide publikoko Drive batean.

[Esteka honetan](#), 1. faseko akta guztiak ere aurki ditzakezue.

Pertsona batzuk arazoak izaten ari dira aktetara sartzeko orduan, Google Drive-rako sarbiderik ez dutelako. Beste aukera batzuk planteatzen diren bitartean, orain arte bidalitako akta guztiak posta elektroniko eta Whatsapp bidez bidaliko ditugu. Halaber, Udalera hurbildu eta aktak eskatu edo hauek eskuratzeko laguntza eska daiteke.

#### 4.- Udalaren webgunean informazioa:

Uharteko Udalaren webgunean gune bat prestatu da prozesu parte-hartzaileari buruzko informazio guztiarekin:

[Esteka honetan](#).

#### 5.- Komunikazio bideak:

WhatsApp-eko informazio-talde bat sortu da (Norabide bakarrekoa da, mezuak jasotzeko soilik). Talde honetan lehen tailerrean baimena eman zeniguten pertsona guztiak zaudete sartutak. WhatsAppen taldean sartzeko, [sartu hemen](#)

Era berean, e-posta talde informatibo bat sortu da, saioetan zehar posta elektronikoa eman ziguten pertsona guztiak bertan sartzeko. EBKren komunikazio-taldean sartzeko, galdetegi labur baten bidez egin dezakezue, esteka honen bidez:

Uharten Energia Komunitatea eratzeke parte-hartze prozesua  
Proceso participativo para la constitución de una Comunidad Energética en Huarte

# GURE ENERJIA, GURE INGURUKOEKIN LA ENERGÍA EN PODER DE LAS PERSONAS

## 2. FASEA. DISEINUA ETA KO-SORKUNTZA / FASE 2. DISEÑO Y CO-CREACIÓN

Talde eragilea eta lantaldeak eratzea eta abian jartzea.  
Conformación y puesta en marcha de Grupo Motor y los Grupos de Trabajo.

### PARTE HARTZEKO TAILERRAK:

Apirilak 18, asteartea  
Maiatzak 2, asteartea  
Maiatzak 16, asteartea  
Maiatzak 30, asteartea  
Ekainak 13, asteartea

PLAZALDEA: 18:00 h.

### TALLERES PARTICIPATIVOS:

18 de abril, martes  
2 de mayo, martes  
16 de mayo, martes  
30 de mayo, martes  
13 de junio, martes

PLAZALDEA: 18:00 h.



ORGANIZA / ANTOLATZAILEA

Uharteko udala  
Ayto. de Huarte

SUBVENCIONA / DIRU-LAGUNTZA

Gobierno  
de Navarra Nafarroako  
Gobernua



### MÁS INFORMACIÓN / INFORMAZIO GEHIAGO

Ayuntamiento de Huarte / Uharteko Udala  
Plaza de San Juan, 1, 31620 Huarte  
San Juan plaza 1, PK 31620Uhart  
ayuntamiento@huarte.es • udala@huarte.es • 948 33 07 61

**INFORMATUTA EGON NAHI DUZU?**  
Eman alta gure komunitatean.  
**¿QUIERES ESTAR INFORMADO/A?**  
Date de alta en nuestra comunidad.